

**DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2024****KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA**

1. Komunikabideak (AAGen)	3
2. Kirol federazioen programak	5
3. Kirol lehiaketetan parte hartzea	6
4. Kirol lehiaketen antolaketa	8
5. Kultura Ondarea Saria	9
6. Kultura ondarearen ikerketa	11
7. Ondare Immateriala babestea	13
8. Kultura ondarea balioztatzea	15
9. Itsas kultura ondarea	17
10. Museoak eta bildumak	19
11. Artxibo pribatuak	21
12. Artxiboko dokumentazioa ikertzea	23
13. Irakurketa sustatu	25
14. Liburutegietako liburu funtsak	27
15. Liburutegietan teknologia berriak	28
16. Kultura ondarea digitalizatzea	30
17. Musika	32
18. Arte eszenikoen sustapena	33
19. Arte eszenikoen produkzioa	34
20. Ikusentzunezkoen garapena	35
21. Ikusentzunezko produkzioa	36
22. Arte plastikoak eta ikusizkoak	37
23. Gure Artea sariak	38
24. Literatura argitalpenak	39
25. Euskadi literatura sariak	40
26. Irudi sorkuntza	41
27. Sorkuntzako kultura guneak (Sorgune)	42
28. Bitartekotza eta Berrikuntza Kultura eta Gizarte arloan (Bitartez)	43
29. Kultura sorkuntza	44



30. Jaialdiak	45
31. Alderdi politikoen fundazioak	46
32. Kultura publikoa	47
33. Kultura sustapena eta banaketa	48
34. Kultura eta sormen industrien berrikuntza	49
35. Kogarapen zinematografikoa	50
36. Euskara gizarte bizitzan (Euskaingintza)	51
37. Euskara gaztelaniazko hedabideetan	53
38. Euskara sektore pribatuan (Lanhitza)	55
39. Euskara eta genero berdintasuna (Berdintzen)	57



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Komunikabideak (AAGen)

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko uztailaren 23koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuarena, eguneroko informazioa ematen duten komunikabide profesionalek zabaltzen dituzten edukiak sortzean, lantzean eta argitaratzean adimen artifizial generatiboak duen eragin negatiboa minimizatzeko 2024rako dirulaguntzen deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

Programaren araua eta deialdia:

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/07/2403684e.pdf>

Emate-ebazpena:

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/11/2405192e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal Autonomia Erkidegoko eskualdeko eta tokiko eremuan eguneroko informazioa ematen duten komunikabide profesionalek zabaltzen dituzten edukiak sortzean, lantzean eta argitaratzean adimen artifizial generatiboak duen eragin negatiboa minimizatzeko xede izan du dirulaguntza-programa honek.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Dirulaguntza deialdian onartutako eskaera guztiak diruz lagundu ziren.

Dirulaguntza arautzen zuten oinarrietan ezarritako mugak (lerroaren edo azpillerroaren zenbateko osoaren %30a edo jardueraren aurrekontuaren %80a) kasu batzuetan aplikatu ziren. Hori dela-eta, emandako dirulaguntzen kopurua 6.201.614,42 €-koa izan zen, hots, esleitutako zuzkiduraren %89 inguru.

Genero-eraginari dagokionez, nulua zela kontuan izan zen, hurrengo balorazio-irizpidea kontuan hartu baitzen proiektuen balorazioan:

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren, emakumeen aurkako indarkeriaren eta LGTBI pertsonen eskubideen arloko desinformazioaren aurkako borroka (albiste faltsuak, zurrumurruak, indarkeriaren edo LGTBIfobiaren tratamendu desagokia, etab.), bereziki, eremu horietan adimen artifizial generatiboko metodoekin sortutako desinformazioaren aurka.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Emandako dirulaguntzen kopurua	-	34

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Kirol federazioen programak

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko martxoaren 12koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez egiten baita euskal kirol-federazioen 2024ko kirol-programak finantzatzeko dirulaguntzetarako deialdia. (EHAA 66. Zk 2024ko apirilaren 4a)

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

Araua eta deialdia: <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/04/2401615e.pdf>

Emate-ebazpena: <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/07/2403553e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskadiko kirol-federazioak urteko programa gauzatzeko finantzatzea, itzultzekoak ez diren dirulaguntzen bidez.

287/2000 Dekretua, abenduaren 26koa, euskal kirol-federazioen kirol-programetarako dirulaguntzak ematea arautzen duena betetzeko.

Helburua da Euskadiko kirol-federazioei laguntza ekonomikoa ematea, euren kirol modalitateari dagozkion autonomia erkidegoko eremuko kirol jarduera eta lehiaketak bultzatzeko, kalifikatzeko, baimentzeko, arautzeko eta antolatzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

43 eskaera egin ziren eta 43k jaso dute dirulaguntza.

Aurrekontuan aurreikusia: 2.200.000 €. Aurrekontuaren gauzatzea: 2.200.000 €.

Eragina gizartean: helburuak bete ditu dirulaguntza honek, beraz, erabat erabilgarria dela adierazten dugu.

Desberdintasunak ezabatzeko ekintzak garatzen dituzten, emakumeen parte-hartzea sustatzen duten eta berdintasuna sustatzen duten federazioei lagundu zaie.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Emandako dirulaguntzen kopurua	45	43

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Kirol lehiaketetan parte hartzea

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko maiatzaren 14koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez ezartzen baita dirulaguntzak emateko erregimena 2024an egingo edo hasiko diren kirol-lehiaketa ofizialetan parte hartzeko, nazioarteko eremua eta izaera dutenetan, kategoria absolutuan, eta emakumezkoen taldeko kirolen estatu mailako ligetan, kategoria absolutuan (EHAA 99 zk. 2024ko maiatzaren 22)

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

Araua eta deialdia: <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/05/2402467e.shtml>

Emate-ebazpena: <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/11/2405172e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Kirol-lehiaketa ofizialetan parte hartzeko, nazioarteko eremua eta izaera dutenetan, kategoria absolutuan, zuzendutako dirulaguntzak dira. Emakumezkoen liga nazionaletan, kategoria absolutuan, parte-hartzea ere diruz laguntzen da.

Helburua da euskal kirola nazioarteko esparruan egotea, eta kirol-jarduera sustatzea ere bai.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

42 eskaera egon ziren eta 34 dirulaguntza jaso zuten. Nazioarteko lehiaketetan eta emakumezkoen kategoria absolutuko liga estataletan parte hartu zuten klubak izan dira, eta horren ondorioz, kirol esparruan eragin handia sortu dute.

Aurrekontuan aurreikusia: 700.000 €. Aurrekontuaren gauzatzea: 700.000 €.

Eragina gizartean: helburuak bete ditu dirulaguntza honek, beraz, erabat erabilgarria dela adierazten dugu.

Emakumeen parte-hartzea sustatzen duten jardueri lagundu zaie.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Emandako dirulaguntzen kopurua	32	34

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Kirol lehiaketan antolaketa

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko ekainaren 4koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen eta ezartzen baita dirulaguntzak emateko erregimena, 2024an goi-mailako kirol-lehiaketak antolatzeko. (EHAA 115 zk. 2024ko ekainaren 13a)

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

Araua eta deialdia: <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/06/2402856e.shtml>

Emate-ebazpena: <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/11/2405073e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal Autonomia Erkidegoan goi-mailako kirol-lehiaketak antolatzen laguntzeko dirulaguntzak dira. helburua da goi mailako kirola sustatzea, batetik, Euskal Herrian oinarritzko kirola garatzeko funtsezko faktorea delako eta, bestetik, estatu-mailako eta nazioarteko kirol-lehiaketa ofizialetan errepresentazio-funtzioa duelako.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

28 eskaera egon ziren eta 28ak dirulaguntza jaso zuten. Lehiaketa guztiak goi-mailakoak dira eta estatu-mailako edota nazioarteko kirol esparruan eragin handia sortu dute.

Aurrekontuan aurreikusia: 200.000 €. Aurrekontuaren gauzatzea: 200.000€.

Eragina gizartean: helburuak bete ditu dirulaguntza honek, beraz, erabat erabilgarria dela adierazten dugu.

Emakumeen parte-hartzea sustatzen duten jardueri lagundu zaie.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Emandako dirulaguntzen kopurua	30	28

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Kultura Ondarea Saria

2.- Araua

AGINDUA, 2023ko abenduaren 7koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2024ko «Kultura Ondarea Saria» deitzen eta arautzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/12/2305652e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/05/2402649e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen helburua da saritzea 2023-2024 ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe ofizialetan matrikulatutako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailetako, Batxilergoko lehenengo mailako eta Lanbide Heziketako Erdi Mailako Heziketa Zikloetako lehenengo mailako ikasleak; hain zuzen ere, bideo baten bitartez euskal kultura-ondarearen ezagutza hedatzen hobekien laguntzen dutenak.

«Kultura Ondarea Saria»-ren helburua da hezkuntza-jardueraren ekimena, berrikuntza, ekintzailetzarako gaitasuna, sormena eta garapen soziala sustatzea, Euskal Kultura Ondarearen forma material zein immaterialen ezagutzarekin eta balorazioarekin lotuta.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2024ko edizioari esker, pandemiaren etenaldiaren ondoren, saria sendotzen hasi da, eta aukera paregabea izan da eskola-egutegiaren barruan urtero garatzen den ekimen gisa kokatzeko, pandemiaren aurretik izan zen bezala.

Edizio honetan, 14 ikastetxeren 61 bideo jaso dira, baina 6 baztertu behar izan dira, ezarritako irizpideren bat ez betetzeagatik, eta, azkenean, 55 bideo izan dira guztira. Guztira, 55 bideo horietan 237 pertsonak hartu dute parte, 3-6 laguneko taldeetan banatuta. Hala ere, hurrengo urteetan kopuru hori handitu nahiko genuke. Aurten iaz baino bideo gutxiago jaso badira ere, ikastetxeen parte-hartzea handitu egin da, eta hori oso positibotzat jo da. Parte hartze zabalagoa lortzeko eta sarian ikasle mota anitzak sartzeko, 2024-2025eko ediziorako beste bi ikastarotan parte hartzea proposatzen da: Oinarritzko Mailako Heziketa Zikloetako lehen eta bigarren mailakoena.

Aurreko edizioaren ondoren, sarirako esleitutako aurrekontu-partida hobetzeko beharra ikusi zen (Napolirako kultura-bidaia hiru talde irabazleentzat), kontuan hartuta talde irabazleetako partaideak 3 izan



daitezkeela edo 6, gehi tutore bat, horrek ekar ditzakeen aurrekontu estutasunekin. Hau izan da aurrekontu-hobekuntza horren lehenengo edizioa.

Sariaren baliogarritasunari dagokionez, gure ustez, kultura-ondare materiala eta immateriala oso eklektikoak dira, eta ikuspegi eta tresna baliotsua izan dira irakasleentzat, irakasgaiak azaldu eta lantzeko orduan; ikasleentzat benetako aurkikuntza bat izan da, iraganak beren ingurunea, historia eta bizitza azaltzeko eta ulertzeko orduan duen balioa ikasteko eta ulertzeko modu dibertigarri eta kolektibo bat.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Emandako dirulaguntzen kopurua	3	3

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Kultura ondarearen ikerketa

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko uztailaren 16koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2024an eta 2025ean Euskal Kultura Ondarearen babesaren arloa bideratutako ikerketa-lanak egiteko diru-laguntzen deialdia egin eta hartarako araubidea arautzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHA Ari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/09/2404072e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/01/2500324e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Aginduaren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko kultura-ondareko elementu materialei buruzko 2024 eta 2025 bitartean egiten diren ikerketa-proiektuak diruz laguntzea, elementu horien balioak identifikatzeko eta legez babesteko ezagutza erabilgarria sortzeko asmoz, euskal kultura-ondarearen parte diren aldetik.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2. artikulua babesean (diruz lagun daitezkeen jarduerak), onartutako 23 proiektuetatik 13 diruz lagundu dira. Onartutako 23 proiektuetatik, 15ek dirulaguntza jasotzeko eskubidea izateko behar den gutxieneko puntuazioa lortu dute, baina aurrekontu erabilgarria ez da 15 proiektutarako dirulaguntza ematera iritsi. Zehazki, bi proiektuk, atalasearena baino puntuazio handiagoa lortu arren, ezin izan dute dirulaguntzarik lortu, eskatutako zenbatekoaren % 100 diruz lagundutako azken proiektuaren ondoren eskuragarri zegoen zenbatekoak ez zuelako estaltzen, gutxienez, bi proiektuetako ezeinetako aurrekontu diruz lagungarriaren % 65. Beraz, dirulaguntzek ez dute agortu aurrekontu-partida erabilgarria, eta 5.153 euroko soberakina geratu da banatu gabe.

2024an diruz lagundutako proiektuen xedea euskal kultura-ondarearen alderdi oso desberdinak dira. Hala, Paleolitikotik Aro Garaikidera bitarteko arku kronologiko zabal bat hartuko duten ikerketa-lanetarako dirulaguntzak eman dira. EAEko hiru lurraldeetan egingo dira, diziplina anitzeko taldeekin, ondasunen tipologiaren eta kronologiaren arabera: arkeologoak, ondarearen dokumentazio geometrikoko espezialistak, geologia, arkitektura, artearen historia, epigrafia eta hizkuntzalaritza historikoa, urpeko arkeologia, etab.

Haien erabilgarritasunari eta inpaktu sozialari dagokienez, ikerketen gaian ikusten da eragin positiboa izaten ari dela Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legeak aitortutako eta bultzatutako

kultura-ondarearen esparru kontzeptuala zabaltzean, bai eta genero-ikuspegiaren presentzia eta kultura-ondarearen gaineko ikusizko kutsaduraren eta kutsadura akustikoaren problematika ere. Gainera, proiektuetako bat klima-aldaketak marearteko ingurunean arkeologian eragingo duen arazoaren planteamendutik egiten da; izan ere, espazio horretan dauden ondare-hondarrak laster utziko diote agerian jartzeari, eta askoz ere zailagoa eta garestiagoa izango da dokumentatzea. Era berean, proiektu batzuen metodologian, adimen artifiziala kultura-ondarearen azterketan nola aplikatu ikertzeko interesa dago, bai eta errekarrietako zoladuren azterketan ere.

Gainera, uste dugu agindu honek eragin oso positiboa duela euskal kultura-ondarearen ezagutzan; izan ere, gizarteari sarbide irekia eta doakoa ematen ari gatzazkio, «Kultura-ondarearen ikerketak» serieko argitalpenaren bidez. Diruz lagundutako lan horiek oso interesgarriak iruditzen zaizkigu metodo edo gai berritzaileekin ikerketak egiteko.

Azkenik, dirulaguntza horiek generoaren eta berdintasunaren arloan duten eraginari dagokionez, proiektuak baloratzeko irizpideek klausula bat dute, 100 puntutik 5 ematen dizkiona ikerketa-lana zuzentzen duen pertsona emakumea izateari edo proiektuaren formulazioan genero-ikuspegia txertatzeari. 2025eko deialdian, 23tik 5ek jaso zituzten bost puntuak, kasu guztietan emakumeak agertzen zirelako proiektuaren eskatzaile/ikertzaile nagusi gisa. Horiek guztiek jaso zuten dirulaguntza, eta gaietako bat, hain zuzen ere, Arabako jauregi-arkitekturaren genero-ikuspegitik egindako azterlan batean zentratzen da.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Kultura ondarearen babesaren alorrari aplikatutako ikerketa lanak (dirulaguntza kop.)	12	13

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Ondare Immateriala babestea

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko irailaren 6koa, Jaurilaritzaren lehen lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2024-2025 aldirako Euskal Kultura Ondare Immateriala babesteko lanak egiteko dirulaguntzak emateko deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2024/09/2404287a.shtml>

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/12/2405888e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen helburua da dokumentazio, ikerketa, transmisio, hedapen eta sustapen-proiektuak bultzatzea, euskal kultura-ondare immateriala babesten laguntzeko. Honako hauek diruz laguntzen dira: kultura-adierazpen ez-materialak ikertzeko eta erregistratzeko proiektuak; elementu horien egoera aztertzeke eta diagnostikatzeko dokumentuak eta jarduera-proposamenak; kultura-elementu ez-materialak kudeatzeko eta babesteko planak; adierazpen horietako edozeinen transmisioa bultzatzen laguntzen duten proiektuak, eta, oro har, euskal ondare immaterialaren ezagutza zabaltzen eta hobetzen laguntzen duten jarduerak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Aurtengo deialdiak harrera ona izan du euskal ondare immaterialean interesa duten pertsonen eta elkarten artean. 27 proiektu aurkeztu dira. 27 proiektu horietatik 13k dirulaguntzaren Aginduaren 15.1 artikuluan eskatutako gutxieneko puntuazioa lortu zuten: 70 puntu. 70 puntu baino gehiago lortu dituzten proiektuen zenbateko ekonomikoa 352.268,17 eurokoa da. Oraingo honetan, eskaerek Aginduan aurreikusitako partida ekonomikoa gainditzen dute. Ondorioz, puntuazio onena lortu duten zortzi proiektuak baino ez dira diruz lagundu.

Garrantzitsua da lan horiek gizartean duten eragina babestu beharreko elementuak dauden lekuetan. Diruz lagundutako zortzi proiektuetatik seitan elementua eraman duen komunitateak aurkeztu du bere proposamena.

Generoaren ikuspegitik egindako azterketari dagokionez, aginduan balorazio-irizpide bat dago, emakume batek zuzendutako jardueri mesede egiten diena, edo emakumeen kolektibo baten parte-hartzea dakartenei, edo genero-ikuspegia txertatzen dutenei. Ildo horretan, esan behar da eskaera gehienak (%



74) emakumeen zuzendaritzapean aurkeztu direla, nahiz eta aurkezten diren proiektuetan (askotan ez dute izaten) generoaren dimentsioa ia ez den hautematen.

Oraingo ezagutza-agirian, elementua daraman komunitateak proiektuan parte hartzea balioestea proposatu da, Aginduaren 16. artikuluan. Proiektu guztiek jasotzen dute komunitate eramailearen parte-hartzea programek zehazten zituzten jardueren garapenean.

Oraingo deialdiaren beste berrikuntzetako bat proiektua garatzeko erakunde eskatzaileek egindako ekarpen ekonomikoa izan da, Aginduaren 16. artikulua. Lehen kasu horretan, deialdira aurkeztutako proiektuen % 66,6k proposatu dute erakunde eskatzailearen ekarpen ekonomikoa.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Euskal kultura-ondare ez-materiala babesten laguntzen duten lanak (proiektu-kopurua)	7-8	8

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Kultura ondarea balioztatzea

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko ekainaren 5koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, Euskal Kultura Ondarearen garrantzia azpimarratu eta hedatzeko 2024-2026 aldirako dirulaguntzetarako deialdia arautzen eta egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2024/06/2402803a.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2024/06/2402803e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak, gehienez ere, 2024-2026 hiru urteko aldian garatu beharko dira, EAEko kultura-ondasunaren deklarazioa duten ondasunen gainean, eta pertsona fisiko jabeek nahiz irabazi-asmorik gabeko pertsona juridiko pribatuek edo publikoek sustatu beharko dituzte.

Agindua Euskal Autonomia Erkidegoko 2024ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 22ko 21/2023 Legean Kultura Ondarearen Zuzendaritzari esleitutako aurrekontu-programan txertatzen da, guztira 3.000.000 euroko aurrekontu-zuzkidurarekin, 1.000.000 euroko 3 urtekotan banatuta (2024, 2025 eta 2026).

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Kulturako sailburuordearen 2024ko abenduaren 9ko Ebazpenaren bidez, 2024-2026 aldirako Euskal Kultura Ondarearen balioa nabarmentzeko eta zabaltzeko dirulaguntzak eman ziren, eta 20 jardueratarako dirulaguntza eman zen (1 Araban, 6 Bizkaian eta 13 Gipuzkoan). Onuradunak 13 udal, irabazi-asmorik gabeko 6 erakunde juridiko eta enpresa 1 dira. Jarduera motari dagokionez, diruz lagundu dira: ondasun higiezinak berrerabiltzeko 8 proiektu, Donejakue Bideko Monumentu-multzoari balioa emateko 7 proiektu, Burdin Hesiaren Monumentu-multzoari balioa emateko proiektu 1, Hirigune Historikoei balioa emateko 7 proiektu, beste Monumentu-multzo edo Monumentu batzuei balioa emateko 4 proiektu, ondare arkeologikoari balioa emateko 2 proiektu eta elizaren kultura-ondasunei balioa emateko eta zabaltzeko 4 proiektu.

Jarduerak hasi zirenetik igarotako epea oso laburra denez, oraingoz ez da amaitu diruz lagundutako jarduerarik.

Aurrekontua gauzatzeari dagokionez, aurreko deialdian bezala, aurrekontu osoa Aginduan ezarritako kalkulu-prozeduraren bidez banatu da; hala, erakunde onuradun bakoitzari gehieneko dirulaguntza eman ahal izan zaio, balorazio-fasean lortutako puntuazioaren arabera. Guztizko aurrekontu-kreditua (3.000.000 euro) agortu egin da dirulaguntza lortzeko ezarritako gutxieneko puntuazioa lortu duten 20 eskabideekin, horregatik eskatutako gutxienekoa baino puntuazio handiagoa lortu duten 7 eskaera ukatu egin dira.

Diru-laguntzaren erabilgarritasunari dagokionez, kultura-ondarea osatzen duten ondasunetan egindako jarduketak, kasu askotan, izaera bereziko ondasun baliotsu eta kalteberetan egindako esku-hartze konplexuak dira, eta inbertsio ekonomiko handiak eskatzen dituzte konplexutasun teknikoagatik, espezifikotasunagatik, kontserbazio-egoera eskasagatik edo tamainagatik. Diru-laguntza emateko agindua ezinbesteko sustapen-neurria da; izan ere, kasu askotan, jabe partikularrek eta administrazio publikoek ez dute haiek bakarrik lantzeko gaitasunik. Bestalde, agindua bereziki eraginkorra da arlo ekonomikoan apalagoak diren jarduerak sustatzeko, gizartea sentsibilizatzea eta kultura-ondarea sozializatzea bideratuta daudenak, eta, ondare hori zaintzeko eta kontserbatzeko ezinbestekoak izan arren, batzuetan lehentasunezkoztat jotzen ez direnak, bereziki, toki-administrazioek.

Gizarte-inpaktuari dagokionez, urtero egiaztatzen da erakunde publikoek aurkeztutako eskaeren proportzioa askoz handiagoa dela pertsona edo erakunde pribatuena baino, eta horrek aukera ematen du interpretatzeko proiektu horiek eragin eta interes sozial handiagoa izango dutela. Bestalde, diruz lagundutako ia jarduera guztiek kultura-ondasunen seinaleztapena eta interpretazioa barne hartzen dute, eta horrek haien ondare-balioei buruzko hedapena eta sentsibilizazioa bultzatzen du gizartean.

Azpimarratzekoa da, halaber, kultura-ondarearen sektorean espezializatutako teknikariak eta enpresak kontratatzea eskatzen duten diruz lagundutako jardueren garapenak sortutako jarduera ekonomikoa, tokiko garapenari lagun diezaiokeela.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Emandako dirulaguntzen kopurua	25	20

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Itsas kultura ondarea

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko ekainaren 5koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, itsas kultura-ondarearen garrantzia nabarmentzeko 2024ko ekitaldiko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezarri eta deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2024/06/2402891a.pdf>

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/06/2402891e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza hauek itsas-ondarearen arloan eman ditugu kultura-balioa duten elementuak sustatzeko, sendotzeko, konpontzeko eta bere erabilera egokitzeko. Jarduera horiek, betiere, bateragarriak izan behar dira elementu horien kultura-balioekin.

Lau diru-laguntza lerrotan eman dira laguntzak, jarraian adierazten den bezala:

1. lerroa. Egurrezko ontzietan obrak egitea, musealizazioa helburu. Honako hauek lagunduko dira diruz: azterlanak, segurtasunerako obrak eta sarbidea, kartelak...
2. lerroa. Egurrezko ontziak tresnatzea eta prestatzea, jendeari zerbitzua emateko. Barne: segurtasun-eta nabigazio-ekipamendua, balioan jartzea eta egiturazko lanak, nabigaziorako beharrezkoak direnak.
3. lerroa. Egurrezko ontziak konpontzeko eta egokitzeko gastuak. Barne hartuta ontziaren nabigaziorako beharrezkoak diren lizentzia eta baimenak izapidetzeko gastuak. Esku-hartzeak ez die ondare-balioei kalte egingo.
4. lerroa. Zurezko itsas kultura-ondarearen balioa nabarmentzeko ekitaldiak: itsas kultura-ondarearen balioa nabarmentzeko zuzen zuzeneko ekitaldiak (itsasontzien kontzentrazioak, erakusketak, hitzaldiak, jarduera didaktikoak, argitalpenak...).

- 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

31 proiekturi eman zaie laguntza (150.000 €).

Ondare horretan dauden partikularrek, elkarteek eta gainerako erakundeek ondo baloratutako dirulaguntzen agindua da, eta, salbuespenak salbuespen, interesdunen artean oso ezaguna eta ondo baloratua da.



Deialdi honetan ez da generoaren araberako eraginaren ebaluaziorik egin behar, zurezko ontzi tradizionalen inguruko lanak diruz laguntzean oinarritzen baita.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
1. lerroan emandako laguntzen kopurua		4
2. lerroan emandako laguntzen kopurua		11
3. lerroan emandako laguntzen kopurua		8
4. lerroan emandako laguntzen kopurua		8



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Museoak eta bildumak

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko uztailaren 3koa, Jaurilaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, Euskadiko museo eta bildumetarako 2024ko dirulaguntzen oinarriak onartzeko eta deialdia egiteko dena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

[2403361e.pdf \(euskadi.eus\)](#)

[2405804e.pdf](#)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Beharrezkotzat jotzen da legezko oinarriak zedarritzeko tresna bat ezartzea, alde batetik, dirulaguntzak emateko prozesuaren objektibotasun-, lehia- eta publizitate-printzipioak bermatzeko. Dirulaguntza horien helburua honako jardun-ildo estrategiko hauetan eragina duten proiektuak egiten laguntzea da:

- a) Bilduma osatzen duten funtsak katalogatu eta dokumentatzea.
- b) Erakusketa iraunkorra berritzea eta aldi baterako erakusketak antolatzea.
- c) Bere gaiarekin eta jardun-eremuarekin bat datozen jarduera didaktikoak eta kultura-zabalkundekoak diseinatzea eta eskaintzea.
- d) Gaiaren eta jardun-eremuaren inguruko ezagutza sortzea.
- e) Museoaren kudeaketan eta hedapen- eta komunikazio-planean berrikuntza hobetzea eta bultzatzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatze eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2024an, 28 erakunderi zegozkien 52 eskabide aurkeztu ziren. 51 laguntza eman ziren eta eskaera bat ukatu zen laguntza lortzeko baldintzak ez betetzeagatik (liburutegi partikularra zen). Kontuan hartuta 51 dirulaguntza horiek 42 museo onuradun potentzialetatik 28ri eman zaizkiela – deialdiaren oinarrien arabera, erregistratutako museo guztiak ezin dira laguntza horien onuradun izan –, esan daiteke 2024an laguntza horiek eragin handia izaten jarraitzen dutela museo-jarduera orokorrean, eta bete egiten dela Euskadiko 2024ko aurrekontuen memorian ezarritako 46ko helburua.

Aipatu behar da balorazio-prozesua gainditu zuten proiektuetarako eskatutako zenbatekoen guztizkoak (1.334.693,00 euro) gainditu egiten duela aurrekontuetan esleitutako 1.000.000,00 euroko muga, eta, beraz, hainbanaketa baten bidez murriztu behar izan zirela dirulaguntzak. Horrela, 1.000.000 euro banatu

dira 60 puntu edo gehiago lortu zituzten 51 eskabideen artean, hau da, dirulaguntza lortzeko gutxieneko puntuazioa lortu zutenen artean.

Proiektu gehienek 2. adierazleetan eragiten dute (Erakusketa iraunkorra berritzea eta aldi baterako erakusketak egitea, 19 proiektu). Horren atzetik daude 3. adierazlea (Bere gaiarekin eta jarduera-eremuarekin bat datozen jardura didaktikoak eta kultura-zabalkundekoak diseinatu eta eskaintzea, 13 proiektu) eta 1. adierazlea (Bilduma osatzen duten funtsak katalogatu eta dokumentatzea, 12 proiektu). Azkenik, 5.a dago (Berrikuntza hobetzea eta bultzatzea kudeaketan eta museoaren hedapen- eta komunikazio-planean, 7 proiektu). Oro har, esan daiteke aurreikuspenak bete direla helburu bakoitzerako aurreikusitako magnitudeei dagokienez, baina azpimarratu behar da ez dela 4. adierazleko proiekturik aurkeztu (Bere jardura-eremuarekin lotutako ezagutza sortzea).

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
1. Bilduma osatzen duten funtsak katalogatu eta dokumentatzea.	8	12
2. Erakusketa iraunkorra berritzea eta aldi baterako erakusketak antolatzea.	17	19
3. Bere gaiarekin eta jardun-eremuarekin bat datozen jardura didaktikoak eta kultura-zabalkundekoak diseinatzea eta eskaintzea.	14	13
4. Gaiaren eta jardun-eremuaren inguruko ezagutza sortzea.	4	0
5. Museoaren kudeaketan eta hedapen- eta komunikazio-planean berrikuntza hobetzea eta bultzatzea.	3	7

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Artxibo pribatuak

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko maiatzaren 8koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez publikoak ez diren artxiboak antolatu, digitalizatu eta zabaltzeko dirulaguntzak emango baitira eta 2024ko ekitaldirako deialdia egiten baita.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/05/2402269e.shtml>

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/12/2405571e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Aginduak artxibo politikaren atal egonkor bat indartzen du epe luzera: artxibo-funtsen jabe pribatuei laguntzea (Euskal Herriaren historia berezia dela-eta bereziki ugariak baitira). Helburuei dagokionez, aurreko urteekin alderatuta ez dago aldaketarik: partikular, familia, erakunde, elkarte eta abarrekin lankidetzan aritzea haien jabegoko artxibo funtsak antolatzeko eta ondoren hedatzeko, batez ere, Euskadiko Artxibo Historikoaren webgunearen bidez. Programa gehienen emaitza izaten da artxiboaren inbentarioa, horixe baita baliabide nagusia ondoren kontserbazio edota digitalizazio programak diseinatu ahal izateko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2024ko ekitaldirako aurrekontuetan 157.000 euroko diru kopurua bideratu zen programa honetara, 11 eskatzaileek 12 eskaera aurkeztu zituzten eta, horietatik 11 proiektu diruz lagundu ahal izan ziren. Eskaera bat diruz lagundu gabe geratu zen aginduko baldintzetako bat betetzen ez zuelako. Edonola ere, aurkeztutako programa bakoitzeko diru-laguntzak ez du gainditu 20.000 euroko zenbatekoa.

Mota honetako programa baten arrakasta jarraitzean eta egonkortasunean datza (eta hori ikus daiteke duen inpaktu sozialean eta eskaeren zenbatekoan eta kalitatean). Helburua da artxibo jabeak eta erakunde partikularrak (fundazio, sindikatu, elkarte, etab.) animatzea haien artxiboak zaintzera eta erabilgarri jartzera, gizarte osoaren mesedetan. Lortutako emaitzak aurreko ekitaldikoak baino pixka bat baxuagoak izan dira baina, hala ere, nahiko pozgarritzat har genitzake, egiten den inbertsioa kontuan hartuta. Lortutako emaitza batzuk hauexek dira: 1) Betiko antolatzen da jabe pribatuen esku dagoen ondare dokumental aberatsaren zati bat, askotan galtzeko arriskuan dagoena eta antolatu gabe ikerketarako eta kontsultarako sarbidegarritasun saila duena 2) Ekimen pribatua sektore honetan



inbertitzera animatzen da; 3) Sare publikoetan ondare dokumentalaren atal oso esanguratsuak integratzen dira, eta herritarren esku jartzen; 4) Jaurlaritzak ikerketarako ematen duen zerbitzua aberasten da eta, horrela, Badator-Dokuklik jada funtsezko erreferentzia bihurtu da Euskadiri buruzko edozein ikerketa egiteko orduan.

Programan genero-ikuspegia sartuta dago balorazio-irizpideetan eta, honela, 5 puntu ematen zaie helburuagatik (emakumeek edo emakume-taldeek edo emakume-elkarteek sortutako artxiboak, edo emakumeen bizitzaren eta jardueren inguruko dokumentu-funtsak), eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako jardueretan duten eraginagatik, proiektuan genero-ikuspegia berariaz txertatzen duten proiektuei.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Dirulaguntza kopurua	18	11



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Artxiboko dokumentazioa ikertzea

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko uztailaren 19koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez ezartzen baita Euskadiko Artxibo Historikoan gordetako artxibo-funtsekin eta dokumentu-ondarearekin lotutako ikerketa-proiektuetarako bekak ematea eta, halaber, onartzen baita 2024an lau beka emateko deialdia.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/09/2404182e.shtml>

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/01/2500023e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskadiko Artxibo Historikoari dagokio Euskal Autonomia Erkidegoari lotutako artxibo-funts publiko eta pribatuen informazioa zabaltzea, bai eta Euskadiko dokumentu-ondarearen eta artxiboen balioari buruzko kontzientziazio sozial eta kolektiborako neurriak proposatzea ere, arlo horretako prestakuntzan eta hezkuntzan lagunduz.

Helburu horrekin, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak ikerketa-beka hauen deialdia egiten du, banaka aurkeztu diren ikertzaileentzat, Euskadiko Artxibo Historikoan dagoen euskal dokumentu-ondarearen ikerketa sustatzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2023rako egin zen deialdiak arrakastarik izan ez zuenez, eta 2024rako egin beharreko doikuntzak egin ondoren, lortutako emaitzak positiboak baino gehiago izan direla esan daiteke. Guztira, 7 proiektu aurkeztu dira, eta horietatik 3 kanpoan geratu dira eskatutako gutxieneko puntuaziora ez iristeagatik. Egiaztatu da, ekimena ikerketa-eremuan behar bezala zabaldu ondoren, interesdunek modu egokian erantzun dutela, eta aurreikusitako gizarte-inpaktua lortu dutela. Deialdi honetarako bideratutako 40.000 euroak hautatutako proiektuen artean banatu dira.

Aginduan jasotzen denez, bekadunek ez dute hizkera sexistarik erabiliko beren lanak idazterakoan, eta erantzukizunpeko adierazpen bat egiten dute esanez harpideduna ez dagoela administrazio-zehapenik edo zehapen penalik sexu-bereizkeria egiteagatik, ez eta zigorrak irauten duen bitartean agindu honetan adierazitako bekez baliatzeko debekurik ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta



Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren babesean.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Dirulaguntza kopurua		

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Irakurketa sustatu

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko ekainaren 19koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, irakurketa eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegien zerbitzuen erabilera sustatzeko dirulaguntzak arautzeko eta dirulaguntza horien 2024ko deialdia egiteko dena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHA Ari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/08/2404025e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 73/2021 Dekretuaren arabera, Liburutegi Zerbitzuaren eskumenak dira: «Euskadiko Liburutegien urriaren 26ko 11/2007 Legearen esparruan Euskadiko Liburutegien Irakurketa Publikoko Sareari dagozkion planifikazio-, funtzionamendu- eta koordinazio-egitekoak garatu eta gauzatzea», bai eta «Irakurtzeko zaletasuna sustatzeko neurriak diseinatzea» ere.

Hori dela eta, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak uste du lehentasuna duela irakurzaletasuna sustatzea helburu duten jarduerak guztiak diruz laguntzea, batez ere, haur eta gazteen artean egiten direnak, eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean txertatuta dauden liburutegietan kultura eta liburutegi-zerbitzuak hedatzeko jarduerak bultzatzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Araututako laguntzak eskuratu ahal izateko, 2024an, 155 eskabide baliodun aurkeztu ziren guztira, aurreko ekitaldian baino 9 gehiago. Pandemia aurreko azken ekitaldiko balioen aldean, behera egin dute apur bat eskabideek (162 eskaera 2019an).

Kontabilizatutako 155 eskaeretatik 132 zuzen justifikatu ziren, hau da, aurkeztutako eskabide guztien % 85,16 (aurreko urtean % 86,99 izan zen) eta 23ri minorazioa aplikatu zitzaion.

Eurotan, 350.000,00 euroko aurrekontu-zuzkiduratik 344.644,00 euro justifikatu ziren, hau da, emandakoaren % 98,47.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Irakurzaletasuna sustatzearen arloan profesionalei prestakuntza espezifikoa emateko jarduerak	3	0
Irakurketako jarduera osagarriak (ipuinaren ordua, irakurketa-tailerrak eta abar)	70	69
Liburuari lotutako erakusketak, solasaldiak eta abar antolatzea	50	49
Literatura-lehiaketak antolatzea	35	30
Liburuetara eta liburutegietara hurbiltzeko kanpainak	95	88

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Liburutegietako liburu funtsak

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko uztailaren 3koa, Jaurilaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, Euskadiko liburutegietarako liburu-funtsak sortu edo/eta berritzeko dirulaguntzen 2024ko deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2024/08/2404058e.pdf>
[2405960e.pdf](#)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honek hiru arlo ditu:

LF1: Liburutegi sortu berriek funts-sortak eskuratu ditzaten

LF2: Lehendik dauden EIPSkoko liburutegiek liburu-funtsak berritu ditzaten.

LF3: Euskadiko EIPSkok ez diren euskal liburutegietako funtsak hornitzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeke eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Aginduan ezarritako epean, lehendik zeuden liburutegietako funtsak berritzeko 186 eskabide aurkeztu ziren.

Halaber, bi liburutegi sortu berri funtsez hornitzeko eskaerak jaso ziren eta bi eskaera Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarekoak ez diren liburutegiak funtsez hornitzeko.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
1.- Eskaerak	190	186
2.- Liburutegi sortu berrietarako fundazio-sortak erostea	1	2
3.- Lehendik dauden EIPSkoko liburutegien funtsa berritzeko tituluak erostea.	30.000	25.572
4.- Mailegurako aleak erostea	230.000	218.057



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Liburutegietan teknologia berriak

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko uztailaren 3koa, Jaurlaritzako Lehenengo Lehendakariordea eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegietan teknologia berriak ezartzeko eta garatzeko dirulaguntzen oinarriak, eta laguntza horien deialdia iragartzen baita.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/08/2404012e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/08/2404012e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programari esker, liburutegiek elementu teknologikoak eskuratzen eta/edo berritzen dituzte. Helburua da liburutegi publikoetan informazio teknologien ezarpena eta garapena ahalbidetzen dituzten ekintzak laguntzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2024ko dirulaguntzen agindu honetara 300.000,00 euro bideratu ziren.

Aginduan ezarritako epean 96 eskabide aurkeztu ziren, aurreko urtean baino 6 gehiago.

96 eskabideetatik 95 onartu ziren, Aginduan ezarritako epearen barruan eta beharrezko dokumentazioarekin. Eskabideetako batek ez zuen 6. artikuluan ezarritako baldintza bete; izan ere, horren arabera, diruz lagundu ahal izango dira Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegietan teknologia berriak ezartzeko edo garatzeko jarduketak bereziak, 2024an gauzatzen badira eta 100 eurotik gorako kostua badute. Beraz, 95 eskaera onartu dira.

300.000 €-ko dirulaguntzaren % 98 (294.530 €) gauzatu da, eta 5.470 € baino ez dira erabili gabe utzi.

Agindu honetara bideratutako diru-kopurua ez erabiltzeko arrazoia honako hau izan da:

- Gutxiagotzeak: 12 liburutegik justifikatu dute hasieran aurrekontuan sartutako gastua baino txikiagoa. Arrazoi horrengatik, 5.470 € itzuli zaizkio ogasunari.

Laguntza horiek emateak esan nahi du sareko liburutegietan ekipamendu informatikoak berritu direla, eta horrek liburutegien eguneroko lana hobetzea dakar, bai eta erabiltzaileek kontsultak egitea eta funtsak erabiltzea ere. Ondorioz, euskal herritarrei liburutegi-zerbitzu hobea ematea dakar. Teknologia berrietarako emandako dirulaguntzekin, liburutegiek Interneteko kontsulta-guneak handitzen jarraitzen



dute, izapide elektronikoak egiteko aukera ematen dute, eten digitala murrizten dute, gizarte-bazterketa jasateko arriskuan daudenentzako laguntzak ematen dituzte eta 2030 Agenda eta Garapen Iraunkorreko Helburuak lortzen laguntzen dute.

Gainera, irakurketa digitalean laguntzen dute ebook-ak erosiz, herritarrei emateko eta, horrela, adinekoei edo ikusteko zailtasunen bat dutenei beren irakurketen letren tamaina egokitu ahal izateko, liburutegiek Agindu honen bidez eskuratutako gailuei esker.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
1. Ordenagailuak berritzea	130	120
2. Eskuerrak, irakurgailu optikoak eta abar berritzea.	400	523



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Kultura ondarea digitalizatzea

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko ekainaren 12koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez euskal kultura-ondarea katalogatu, digitalizatu eta kontserbatzeko gauzazko laguntzak arautzen diren, Euskariana euskal kulturaren atari digitalaren bidez hedatzeko. Horrez gain, 2024an proiektuak aurkezteko deialdia ere egiten da.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2024/06/2403037e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2024/11/2405127e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Kulturaren berrikuntza eta digitalizazioa bultzatzea.

